

Honela aurkitu zen marxismoa

Joxe Azurmendi

Lerro hauek ez dute historia zehatzik izan nahi, egiteko dago, soil-soil ohar orokor batzu baizik, sarrera gisa. 1962-1965 epea bakarrik begiratuko dugu.

60. urteetako erdi aldera egin zuen «marxismoak» lehenengo agerpena gure artean. 1970 joko dio, teorikoki heldutasun erlatibo bat eta sozialki pisuren bat hartzeko. Egon, aspaldiaotik zegoen, Alderdi Komunistarekin esate baterako. Baina gerraosteko belau-naldiek ez dute handik hartu beren marxismoa eta hemen ez dugu aintzakotzat hartuko.

Fenomeno sozial gisa behintzat, marxismoaren gorabeherak Euskal Herrian ETArenekin oso loturik ibili dira: hainbat ETArekin historia idatzienez gero, liburu eta artikulutan, alderdi horretan sakondu beharrik ez daukagu. Historia horrexen inguruan ibili beharke dugu, halere. Aldiak bereiziz errazago izango zaigu eboluzio-prozesuari jarraitzea.

Kakotx artean idatzi dut «marxismoa»: delako marxismo horrek balorapen desberdinak ametitzen dituelako, eta hemen ez duelako eztabaida horietan sartzeak merezi. Bukaeran ohartxoren bat egitea aski izango da.

1. ETAREN sorrerako urteak

1959an sortu zen ETA, Cuban Fidel Castro nagusitzen zen urte be-
rean. Pentsamenduaren eta ekintz planteamenduen eboluzio azkarra
izango du ondorengo urteetan, Biltzar Nagusiek erakusten dutenez. Ho-
na hemen lehenengo lau Biltzarren datak: sorreratik hiru urtetara I. Bil-
tzarra, 1962; gero, urtero, II. Biltzarra, 1963; III. Biltzarra, 1964; IV. Bil-
tzarra, 1965.

1962an egin da Printzipioen lehenengo deklarazioa. Beraz,
1959–1962 bitartea formazio–aldi bat izan da, pentsamenduaren nahiz
organizazioaren aldetik, eta Biltzarrerik ez da egin, h.d., ETAn ez da ino-
lako pentsamendu «ofizialtasunik» egon.

1962 aurreko aldiaz, doi–doi egin daiteke, gure gaian, konjekturak
besterik, iturri idatziez baliatuz. Iturriongatik da hori. Formaziorako koa-
dernoak eta orduko beste idazkiak, izan ere, libururen baten edo batzu-
ren fusilaketa hutsak izan ohi zirela aparte (orain ere edozein estudian-
tek egiten dituen modukoak), ez ETako jendeak eta ez haientzat soilik
eginak izaten ziren beti, nahiz ETako jendeak erabili eta zabaldu. Hasie-
ra batean, 1952tik 1962raino nahi bada, ez zegoen batere garbi ETA zer
izango zen. Gero ere ETAk beti azpimarratuko du, mugimendu bat dela,
ez Alderdi bat. ETA zelako hartan, edo inguruan (gaur honela esan be-
har), jende oso desberdina ibil zitekeen: geroagoko Etarrak, PNVtik hur-
bilago egon zitezkeenak, seminaristak, eliz mugimenduetako gazteak,
politikoki kezkatuak, euskarak larritzenago zituenak, folklorezaleak ere
bai (txistua ere problema zen). Lagunarteotan ikerketa historikoak, poli-
tikoak, linguistikoak, literarioak, sozialak, asko egiten ziren, baina iker-
keta–asmoz bakarrik, bilaketa gisa, talde–pentsamenduren bat mamitze-
ko baino gehiago. Gogora bedi frankismoaren pean gazteriak ez zeukala
inolako modurik bestela, euskal historia, literatura, etab. ezagutzeko.
ETAren historia bat idatzi nahi denean, haren pentsamendua ikertzera-
koan bereberki, hori gogoan ez izatea, hutsegite metodologiko haundi-
txoa da. Alferrik da definiziorik ez dagoen tokian definizioak bilatzea.

Gero, letra idatziaren sakralismoan erori nahi ez badugu, bereizi be-
harra dago ideia batzu zein formulaziorakin agertzen diren eta zein dina-
mikatan dauden. ETAren hasieretako antimarxismoa aipatu izan da.
Egia da, segun eta nola behintzat. Baina zeri esaten zaio antimarxismoa,
borrokatzen den «marxismoa» zer den azaltzen ez badugu? Marxismoa,
orduan, gazte haien problemarik ez zen oraindik, faxismoaren presioak
eta euskal gizarteko tradizio demokrata–kristauek eragiten zuten neu-
rrian ez bada behintzat (abertzaletasunak, alde batetik, eta kristau inspi-
razioko doktrina sozialek, bestetik). Marxismoarekin zuzen–zuzenean
oraindik ez zen gazteria hau aurkitu. Faxismoaren antikomunismoa, za-
lantza gabe, arrazoi bat zen komunismoaren alde, baina informaziorik ez

zen, zinez marxismoa ezagutu ahal izateko. Zeharkako informazio-bide bat, ia bakarra, doktrina sozial kristaua zen. Eta, ikusi ere, ondo ikusten da, lehenengo urteotako ETAn arazo sozialari egiten zaion planteamendua, formulazioari bagagozkio (ez, abisatzen duen dinamikari), doktrina horri zor zaiola. I. Biltzarreko (1962) Printzipioen deklarazioak honelaxe aurkezten zuen arazo soziala:

ETA'k, sozialari buruz, ondorengo puntu auek ditu bere:

Etorkizuneko Euskal Ekonomian amaia eman bear zaio Liberal-Ekonomiari. Azalezkoa gertatzen da Demokrazia, Agiriko Politika utsaren maillan gelditzen baldin ba da, Ekonomiaren arazoetan sakon legetu gabe.

Jabegoaren eskubidea birrikusi eta aldatu egin behar da, Legeak Jabegoaren sozial-aldea agerrera eta zaindu bear du bereziki: industrian, nekazaritzan, arrantzan, eta gaiñerako ekonomi-bazterretan.

Sozializatu egin bear dira oñarrizko ondasun-iturriak eta Aberri aberastasunak. Indartu egingo dira kooperatibak, bear diran laguntzak eskeinita.

Erriaren agindupean eraendu eta planifikatuko da Euzkadi'ren Ekonomia. Ots: Sindikato, Fabriketako Batzorde, Eskualdeetako Elkargo eta Udaletxeek aurrean. Klasetako interesak ez dute ez lekurik ez laguntzarik aurkituko Euskadiko Ekonomian.

Lanaren eta Kapitalaren arteko gora-beheretan ETA'ren irizpidea auxe da: Lanari lehentasuna.

Lantegietako edozein maillatan beti izango dira bi alderdiak ondo izendatuak: Lana eta Kapitala. (Berdin da au ororena izan, ala partikularra). Zuzentzearen einkizunetan eta irabazien zatitzean, batak eta besteak izango dute dagokien parte.

Etekiñak eta ondoriotasunak mugatu egin bear dira, segidako zerga-kateak sortuz.

Asurantzak zuzenak eta prestuak sortuko dira. Ortarako, aitaizunkeriaren xede izkutuai ez, baiñan gizatasunari berez zor zaion itzalari geiago so-egiñik.

Ekonomi errikoiaren ezagugarririk eta zurkaitzik sendoena Sindikatua dan ezker, arras begiratuko ditu Legeak onen eskubideak.

Gizarte-Zuzentasunaren oñarririk zindoena kultura erriaren eskuetan jartzea da. Ortaz, edozein euskaldun biztanlek (nungotarra danez arduratu gabe) jakintza maillarik gorena iristeko aukera egiazkoa izango du, ortarako dohaiñak falta ez ba zaizkio.

Liberalismoaren gaitzespenetik hasi, eta kooperatiben aipura eta kulturaren edo hezkuntzaren inportantziaraino, pentsamendu honen iturburu arruntak (printzipioen deklarazio bat da, ez programa zehatz bat) erraz asmatzen dira. Aski izango da, urrunago gabe, 1956ko Euskal Batzar Orokorra Parisen gogoratzea. Eta, urrunago nahiz gero, gerra aurreko propaganda sozial kristauera jo daiteke. Ez du oso bestela arrazonatuko, urte horietantxe, Arizmendiarieta batek Arrasaten.

Baina zeri begiratzen zion definizio honek?

ETA bera, bai, bere lekuaren definizio—bila zebilen. Eta abertzaletasunaren barrutia zen, lehenik non zeukan bere lekua definitu beharra. Horrek inposatzen zituen lehenengo beharrak. Ez dezagun ahanzt, aurreneko Biltzar honen lehen—lehenengo eginkizuna ETAREN lehen definizio publiko eta ofiziala ematea zela. Eta horretarako, ETA nondik nora sortu zen begiratu eta aisa uler daitekeenez, marxismoaren premiarik ez zen sentitzen oraindik. Alegia, definizioak alde baterantz bakarrik begiratzen eta mugatzen zuen, PNVren abertzaletasunerantz: harekiko diferentziak sinalatzen zituen. Sozialistekiko edo komunistekiko bere mugak eta posizioa definitu beharra geroxeago sortuko da ETAn.

2. Marxismo nahasi bat

Bestalde marxismoa bera sekulako katramila artean zebilen (desestalinizazioa, Txina—URSS arteko iskanbilak). Marxismoak ez zituen eza gutzen geroxeago aurkitu dituen erlatibapenak, komunisten eta kristauen arteko elkarrizketetatik hasi, Garaudy—Althusser oposiziotik eta 68ko maiatzetik pasa, eta gaurko marxismo desberdinetaraino. Marxismoak oraindik bat—bat egiten zuen Soviet Batasunarekin eta Alderdi Komunistekin.

ETAko jendeak bere egiazko kezketatik urrun, edo behintzat bere mugimendutik kanpora, sumatzen zuen marxismo hari, dogmakoikeria salatzen zion (erlijio berri bat bihurtu izana), diktadura izatea batez ere. Lehenengo ETAK faxismoa eta komunismoa ez zituela bereizten esatea, ordea, perspektiba historikorik gabe ibiltzea da. Ez bait da ahaztu behar, urte horiek, Soviet Batasunean bertan, Stalinen akusazio gogorren urteak zirela, desestalinizazio—garaia alegia (1961ean Stalinen gorpua Leninen mausoleotik erretiratzea erabaki zuen XXII. Kongresuak). Komunistentzat beraientzat arazo biziki larria, larriena, zera zen orduan: marxismo ez stalinista bat nola zen posible. XX. Kongresuaz gero onartua bait zegoen, marxismoaren molde stalinista degenerazio bat izan zela.

Istiluokin Europako intelektual ezkertiar gehienak aztoratuta geratu ziren, Stalinen akusazioetan intelektualok ere harrapatuta aurkitzen zirenez gero, lehenago isilik egon zirelako, isiltasun haren arrazoirik ezin emanda orain. Sovietarrek lehenago protestatu ezaren arrazoi sendo bat zeukaten: terrorea. Hainbeste deportazio eta garbiketaren aurrean zergatik isildu ziren, ordea, mendebaldeko intelektual ezkertiarak? Desestalinizazioak konplize bezala uzten zituen.

Stalinismoaren arrazoiak argitzeari ekin behar izan zitzaion. Bestek beste, doktrinan bertan stalinismoa posible egiten zuten puntuak bilatzen bait ziren, laster salatu zen haren sistema dogmakoi bilakatu izana,

errebeldazio baten pareko. Europako intelektualen mugimenduari jarraiki, marxismoaren berpentsaketa kritiko honetan enplegatu den bat, urteotan, Txillardegik da hain zuzen (ETAren paperak ez-ezik, hango jendearen urte haietako produkzio literarioa ere ikusi beharra dago). Txillardegik, existentzialistez baliatuz (Kierkegaard, Unamuno, Sartre), filosofian gero mila aldiz entzun dugun zerbait egosten dio marxismoari: ekonomizismoa, pertsonaren filosofia murriztegia. Ikus Huntaz eta Hartaz. «Soziologiari buruz, eta kondairari buruz ere, produzioaren gora-beherek anitz gerra, istillu eta mogimendu azaltzen dute. Egia da. Baina pertsonari buruz, nik uste, ez dute gauza haundirik azaltzen» (1962). Giroaren adierazgarri, Olaberriaren artikulua ere ikus daiteke, «URSS'ko kultura soka-tiran», Jakin 5, 1961, 7-11.

Existentzialismoaren gora-urteak ziren haiek, bera zen European modako eskola filosofian, literaturan, zineman (azken hau indar sozial bortitza bilakatua dago orduantxe), bere askatasun-ideiekin frankismoaren zentsura eta itxitura artetik sartu eta influentzia lortu zuena, gainera. Esanahi haundia zuen, errebeldatu berriak ziren gazte haientzat. Leturien egunkari ezkutua edo Peru Leartzakoa aztertu beharko genituzke hemen, lekurik ez bait dago. Gogora dezagun, gutxienez, Sartreengatik ez bait luke inork «antimarxista» edo «antikomunista» zela beste gabe esango, gazte ekintzaleen artean arrakasta biziko Existenzialismoa humanismoa da eta Esku zikinak-en egile honek, Merleau-Ponty-rekin, etab., eztabaidan urteak ibili ondoren marxismoari buruz, justu 1960an atera zuela bere Arrazoi dialektikoaren kritika. Horiek ahaztuz ere ezin egin daiteke ETAren pentsamenduaren historia bat.

Sartreren inportantzia ez zetzan, abertzale errebeldatuontzat, haren filosofian bakarrik. Algeriako gerran, beste intelektual gehienek eta komunistek berek ez bezala, Sartrek argi eta garbi inperialismo frantsesaren aurka jokatzeko zuen. Berdin, Fidelen iraultza apoiatzen zuen, ortodoxiaren mizkinkeriarik gabe, 1961ean bidaia sonatu bat eginez Cubara. Sartrek, historiaren filosofia funtsean materialismo dialektikoan inspiratu bat jarraitu arren, iraultzaren kontzeptu libreago bat defendatzen zuen. Batez ere, pertsona bakoitzaren askatasuna ezin ezer bestetara erduzitu aintortzen duen eran filosofian, askatasun borroka modu bakoitzaren autonomia, sistema aldeztu aurretik egin batera erduzitu ezina defendatuko du politikan. Jarrera honengatik, maiz aurkituko da ortodoxia marxistari kontrajarririk, komunistek zapuz egiten dioten edozein borrokari laguntzeko prest, marxismoaren dogmakoikeria salatzen. Sartre eta Burgosko auzia gogora genitzake.

Txillardegik, esan dugunez, pertsonaren filosofi falta egosten zion marxismoari. Kasik ohizkoa zen, orduan, eta ezin esan genezake kritika

originala zenik, Txillardegirentzat, haren trajektorian gero ikusiko denez, esanahi pertsonal haundikoa izan arren. Baina Txillardegik, Sartreren oso antzera horretan ere, urrats bat gehiago ematen zuen: pertsonari bezala, komunitate-zentzuarri ere marxismoak ez diola erantzunik ematen. Honekin nazio-arazoan sartzen gaituzu. Pertsonaren filosofia murriztegiaren kritikarekin lotuta dago, ETAn erabiliko den marxismoaren beste kritika hau: giza komunitateen filosofia murriztegia, are filosofi falta. Puntu honetan marxismoaren arazoa jadanik ez zen, ETako gasteentzat, «estudiatzen» den urrongo zerbait, budismoa edo presokratikoak izan litezkeen moduan, ezpada etxe-etxeko buruhaustea eta borroka bihurtzen zen. Marxismoaren «jabe» ofizialek (monopolio hori hautsi gabe zegoela, gogarazten dut berriro, eta errealtatean jabe ofizial haiek zirela, zeintzuegatik bait zen oraindik marxismoa sozialki definitzen) hemen zera-biltzaten planteamenduak nazio-arazoan, onartu ezinezkoak egiten zitzaizkion ETari. Orduko paper batean irakur dezakezunez, «la problemática del marxismo es a-nacional, al margen de las naciones étnicas. Así Marx (y todos los P.C.) propugnan la lucha dentro de los actuales Estados: con espíritu internacionalista en teoría, es cierto; pero reforzando los genocidios de la actual situación, en realidad. Así el P.C. español y su apéndice vasco actúan ante todo, no como internacionalistas, sino como españoles».

Labur-bilduz: ETA giro (nazional eta internazional) jakin batean sortu zen. Giro honetan marxismoari pertsonaren ez ulertzea leporatzen zitzaion Europako ezkerretan; dogmakoikeria doktrinan, gizartearen antolaera diktatoriala politikan (eta Franco azpian «demokraziak» beste esanahi ditziratsuaigo bat zeukan orain baino). Kritika horiei ETak nazioaren ez ulertzea gaineratuko dio. Hasia dago bereizkuntza egitea, Marx alde batetik eta Soviet Batasuna bestetik (edo marxismoa eta Alderdi Komunistak); baina oraindik praktikan ondoriorik ez dakarren bereizkuntza teorikoa da. Europan bertan geroxeago hasiko dira ondorioak sozialki agertzen, batez ere Khrustxoven politikari Txinak eta Albaniak muzin egin ziotenetik aurrera (Albaniak eta Soviet Batasunak 1961ean eten zituzten harreman diplomatikoak). Hauxe izan da sorrerako ETAn aintzakotzat hartu ez zen edo guztiz kritikoki begiratzen zen marxismoa. Belaunaldi gazteago batek, istiluok ahaztuta, barne-askatasun askoz haundiagoz hartuko du marxismoa urteren batzu geroago. Eta kurioa da, nola hasierako puntu haietara itzuliak dirudigun berriro: pertsona eta komunitatea ulertzeko marxismoaren zailtasunetara.

Pertsonalismoa, alde batetik, eta existentzialismoa, bestetik, Sartre bereziki, izan dira eragin haundieneko bi pentsamendu-eskolak ETaren sorrera inguruan. Biok dira oso kritikoak marxismoarekiko, baina ez «anti» soilak.

3. I. Biltzarra, 1962

Ez da berdin 1962 aurretik eta ondotik. ETAk badauka definizio bat (nahiz behin-behinekotxo izan).

Hasieretako ETAk, hasieretako gazte-multzo hark alegia, nahitaez topo egin behar zuen marxismoarekin bere bidean: ETAk (1) iraultza egin nahi zuen, (2) eta Algeria, Txina eta Cubako iraultzen ereduera begiratzen zuen horretarako; (3) kapitalaren aldean lanaren lehentasun soziala aitortzen zuen, (4) eta egonezin sozial haundiko urteak nola ziren, langileriaren protesta-mugimenduetan lanaren alde sartzean, berehalaxe aurkitu behar zuen marxismoaren praxiarekin eremu horretan. Ikusi eta ikasi beharrean, lehenengo; konkurrentziari buru egin beharrean, gero.

1961ean egin dira ETAREN lehenengo ekintza armatuak. 62an I. Biltzarra. Printzipioen deklarazioan lanaren lehentasuna kapitalarekiko aitortzen da, kapitalismoari orokorki uko egiten zaio, beraz (printzipio hauek gorago transkribatu dira). Oraindik urrun gaude marxismotik, baina klase-borrokaren errealitatea aitortzen da jadanik, hasiak dira abertzaletasun burgesaren salaketak ere: «patriotismo katangués», esango du Txillardegik, 1961eko urriko bere hitzaldian Pariseko Euskal Etxean. Katanga Kongoko herrialde bat zen, meatze haundien eskualdea, Kongo askatu zenean, Europako interes neokolonialisten tropa mertzeneriek 1960an independente jarri zutena, Estatu sezesionistaren buru Tshombé txotxongiloa ezarriz. Ahaztuak ote daude kontu haiek?... «Sin medio de defensa alguno, ikusiko du Txillardegik halaber euskal langileria hitzaldi horretan bertan, sometido por un lado a un falso sindicato estatal, por el otro a la codicia desatada de los capitalistas». «Yo (...) creo firmemente que Euzkadi no es la Patria de una sola clase: es más: Euzkadi en manos de una clase no despierta mis entusiasmos, y comprendo que no los despierte en los que pertenecen a la clase dominada».

Abertzaletasunaren klase-educina ikusia dago. Hasieratik bertatik egin dago aukera ere langile-klasearen alde.

ETAREN Printzipioen deklarazioan, bestela berritasun haundirik eskaintzen ez bada ere (arazo sozialean), atentzio ematen duen bi puntu dago: (1) Lehen-lehenengo esaldia da bat: «ETA Euskal Erakundeak bi elburu edo xede nagusi artu ditu...: Aberriaren Azkatzea, eta Erriaren beraren Azkatzea» (Printzipioen euskarazko textuan hobeto dago hau aditzera emanda, erdarazkoan baino). (2) Bestea Euskadiren askatasuna ez helburu, baina medio bezala ulertzea da: «Euskadiren Askatasuna ez da, ETAREN iritziz, erakundearen betekizunik gorena. Bai, alabaina, premia-tsunea; Euskal Erria alde guztietatik aurrerazteko eta sendotzeko zinezko bide bakarra». Cubarena ezezik, Katangaren lezioa ere gertu zegoen.

Oraingoaz, esaten dena baino esanahitsuago da, nora apuntatzen den. Printzipioetan asmo bat adierazten da, gogo bat, esperientzia bat baino gehiago. Ez bakarrik ETAk berak oraindik esperientzia sozialik doi–doi zuelako, baizik eta gizartean ere mugimendu sozialik apenas zegoelako, haren esperientziarik isladatzeko. Talde txiki eta hertsia bat zen artean, ETAk ezin jakin zezakeen, asmo hauek berehalaxe noraino eramango zuten, hartutako bidearen dinamikaren poderioan. Baina halaxe izango zen.

ETA, izan ere, langile–erakunde sindikalik gabeko gizarte batean sortu zen, h.d., langileriaren mugimendu organizaturik gabeko gizartean. Deskontentu haundia zegoen langilerian, baina deskontentuak ez zeukan organizaziorik. 61ean hasi ziren sindikatu klandestinoak zerbait mugitzen, hurrengo urtean beren arteko elkartasun modu bat sortzeko (ASO, Alianza Sindical Obrera). Halere, urteotan egiaz indartuko direnak Langile Komisioak izango dira eta haien barruan ibiliko da ETA. Esan bezala, bada, 62an ETako lehen taldeak beren baitatik kanporantz irekitzen direnean, bete–beteen langileriarekin aurkitzen dira. 61–62 greba gogorren urteak izango dira. ETA, diktadura frankista eta Euskadiren zapalketa borrokatzen zituena, kapitalismoa garbi–garbi etsaitzat ezagutzera iristen da esperientzia honetan. Zaila da esatea, ezagupen honek nolako hedadura edo sakona zukeen mementuan. Baina urrats haundi bat eman da. Abertzale klasiko asko burgestzat joko da honez gero: «los sectores reaccionarios del nacionalismo vasco que... por su filiación burguesa, se oponen a la acción de los trabajadores», etab.; «abertzaletasuna ondo zegoen (eman dezagun) burges–euskaldunentzat. Euskaldun langilleentzat utsa zan» (Txillardegi).

Honez gero langileen protagonismoa aitor daiteke abertzaletasun berrian: «creemos ciegame en la preponderancia de los trabajadores, porque somos un pueblo que trabaja y porque nuestro modo de ser no admitiría en su libre desarrollo fórmulas de opresión social». Urtebete baino gutxiagoan Printzipioetako antiliberalismo arrunt hartatik klase–posizio garbietara heldu da. Ez da beste urterik pasako, honelaxe aurkituko bait ditugu formulatuta ETaren historian konstanteak diren bi elementu haiek («Aberriaren Azkatzea, eta Erriaren beraren Azkatzea»): «Nuestro movimiento patriótico ha puesto al descubierto nuestra firme determinación de luchar en un doble frente: el de la liberación nacional de Euzkadi y el de la liberación social de los vascos frente a la opresión capitalista». Hasieratik bertatik dauzkagun ETaren kontzientziako bi oinarrizko xedeak, berean irauenez, mamituz doaz.

Baina marxismoaz hitzegiterik ez dago oraindik ETaren baitan. Barrera gogor bat eratsi beharko da lehenago.

1962 urte honetan ETako jendea marxismoa estudiantzen hasiko da

halere. Koaderno batzu ere aterako dira gai honi buruz. Baina marxismoaren dogmakoikeria, erlijioarekiko intolerantzia eta, batez ere, nazio-arazoarekiko itxitasuna, gaindiezinezko eragozpenak izango dira. Ez dago abertzale eta marxista izateko modurik, ez. Marxisten organizazio-teknikak oso interesgarriak aurkitzen diren bezala, filosofia, euskal historiako zenbait fenomeno explikatzeke argigarri dela aitortuz ere, onartu ezinezkotzat ematen da oro har: dogmakoia da, erlijio berri bat; ez dio pertsonari behar adina begiratzen, naziotasuna ez du aintzakotzat hartzen. (Ikus hemen ere, sintoma gisa, J.M. Regillaga, «Gidariak sortzeko metodo komunistak», Jakin 16, 1964, 23–28. Aldizkari hau 61etik zenbaki honetara arte debekaturik egon zen).

ETAren I. Biltzarraren urtea, 1962, Algeriaren independentzi urtea da orobat (geroxeago Enbata-ren sortzaile batzu Algeriako gerran ibiliak izango dira). Algeriari begira, borrokan murgildurik dabiltzanok erraz aurkituko dute Euskadiren tankera koloniala.

4. 1963, Vasconia

1963ko abuztuan Krutwigen Vasconia agertu zen, «estudio dialéctico de una nacionalidad». Arrazoi ugari bezain desberdinengatik, argitalpen honek ikaragarritzko zirrara eragin zuen euskal gizartean, ez ETAn bakarrik (Gabriel Aresti, liburua irakurri eta, bere entusiasmoan, Bilbotik Arantzazuraino etorri zen liburuarekin eskuetan; biraketa sakon bat eragingo zion bere jarreretan).

Liburuak praktikatzen zuen erabateko kritizismoagatik batez ere, inoren lotsarik gabe, euskal kulturako tradizio txo baretan sekulako beritasuna eta eskandalua sortzen zuen. Ikus bedi segituan Un caballo de Troya, M. Robles-Arangitzen errepika (presaka egindako liburutto hau 1964 urtearen hasieran agertu zen, lehenago ezinik).

«Jamás aceptaron los vizcainos, idazten zuen Krutwigek, diferenciaciones de la población vizcaina en clases... La propiedad de Vizcaya era de todos, de todos era la patria y de todos era la tierra». Euskadi libreak berriro komuna igualitarioen federazioa izan beharko du, «y en ellas se deberá llegar a la más completa realización del precepto vasco de todo será de todos y nada será de nadie».

Liburu bitxi hau ezin esan daiteke zinez marxista denik. Berez, euskal «igualitarismoa»ren tesia bera zaharra zen eta tradizionala. Baina, oso inportantea, komunismoa berdin Soviet Batasuna (stalinismoa), edo marxismoa berdin Alderdi Komunistak (Espainiakoa bereberki), ordura arteko axioma tinkoa apurtzen zuen. Aurretiazko sine qua non bat zen hori, ETako abertzale gazteek eta euskal gizarteak marxismoarekiko beste jarrera batzu desarrollatu ahal izateko (berdintasun horiek ez bait zi-

ren ETArenek bakarrik, aurren–aurrenik Alderdi Komunistenak beraienak baino). Seguru asko Krutwigen liburuaren ekarkinik ondoriotsuena, positiboki irakasten zuena baino gehiago, hautsi zuen hori izan da. Bat–batean barrera mental hori birrindu zuen. Euskal komunismo jator bat posible zela, euskal arazoaren planteamendu komunista bat egin zitekeela, pentsabidea irekitzen zuen. Komunismoak lekuan lekuko formula behar zuelako (Krutwigekek Lefèbvrez, etab., baliatuz erakusten zuenez), eta Euskal Herriak bere tradizio komunista propioa bazuelako. Euskal Herriak ez zeukan bere komunismoa antolatzeko beste inondik zer kopiatu, Soviet Batasunetik inongo gutxiena. Aski zen geure tradizio jatorrei atxekitzea. «Quien dice vasco dice comunista, pero nunca estaliniano. Esto es un tipo ruso», etab. «Marx ezkertarra zan (...), ager zezakeen honez gero Txillardegik; baina Errusiako gaurko komunixtarik gehienak kontserbadore hutsak dira». Dogmakoikeriaren objekzioak, etab., kolpe batekin baztertuta geratzen ziren. Euskal Herriak Marxen bere irakurketa abia zezakeen.

Egin ere Krutwigen liburuak marxismoaren usadio haundia egiten zuen, zuzen hala zehar beti gizartearen eta historiaren azterketarako zientzia modernoa eta egokia bera zela goralduz. Azkenerako, Euskadik ez duela irtenbiderik, adierazten zuen, marxismoarekin ez bada. Krutwigekek egiten duen marxismoaren erabilerak, noski, ez ditu denak konbenzituko.

Alde bitatik iristen gara Krutwigen liburuan marxismora: arazo sozialarenetik eta gerrilarenetik (hemen ez daukagu berebiziko inportantzia izango duen gerrila edo «gudu iraultzailea»ren alderdia azaltzen gertzerik). Krutwigen planteamenduko alderdi biotan erraz ikusten da Euskadi askatu eta herria askatu bikotearen jarraipena. Alderdi biok lotzea izango da, hain zuzen, urteotako ETArene buruhauste zailena: borroka nazionala eta iraultza soziala bat egitea. Puntu bihurri honetan ere (gogoan izan, gerora ETArene eten denak hortik sortuko direla) Krutwigekek bere soluzioa zekarren. Hobeki, hirugarren munduko nazio askatasun mugimenduetan aurkitzen zuen sintesia: iraultza nazional, sozial eta herritarra une berean. Eredu «hirugarren mundutiar» honi lotuz, nahikoa ongi josten ziren ordura arte bereiz zebiltzan elementu sakabanatu denak: nazio–askatasunerako borroka eta klase–borroka, euskal tradizio zaharrak eta antikapitalismoa.

Vasconia ez da ETArekin identifikatu behar. Bai prentsa frankistak eta bai PNVk laster ekin dioten kanpainaren aurrean, «el PNV sabe que Vasconia ni es tabú ni es biblia para nosotros... Vasconia no nos gusta», deklaratu beharrean aurkituko da ETA. Baina bai, organizazioari ofizialki gustatzerik ez badauka ere, militantziari gustatu egiten zaio. Eta ez dago dudarik, lehen PNVri abertzaletasun radikalago batetik buru egiten

bazion, Vasconia—z gero, ezkertiar «espainolistei» beraiek baino posizio ezkertiarago eta iraultzaileago batetik erasotzeko gauza sentituko dela ETA. Abertzaleak (PNV) baino abertzaleago, ezkertiarak (PC) baino ezkertiarago.

No supervaloramos lo nacional en detrimento de lo social. No defenderemos nunca para un Mito—Estado nada que vaya en contra de los derechos de la persona humana vasca. Las reivindicaciones sociales las hacemos nuestras. Pero no las vemos como un mundo aparte. Proclamamos que la defensa de la persona frente a la explotación capitalista (tecnocrática gubernamental) es un quehacer primario e inaplazable. Pero no creemos en la liberación social «pura».

Esta, en realidad, no es sino la defensa de los derechos del obrero considerado español o francés, es decir, admitiendo el hecho del genocidio en Euskadi. Esta asimetría en las reivindicaciones no es señal de progresismo: es simplemente reaccionaria en lo nacional.

El pueblo vasco tiene derecho a la autodeterminación y a su autogobierno. Quienes pretenden hacer socialismo «puro», en realidad no pasan de hacer socialismo imperialista por cuenta de España o Francia. Hay nacionalismos reaccionarios porque consideran que se puede propugnar una liberación nacional «pura»; y hay socialismos reaccionarios porque pretenden hacer liberación social «pura».

Entendemos que la liberación nacional y la liberación social de Euskadi son puros aspectos de la liberación TOTAL que propugnamos para las personas de Euskadi (*Liberación nacional y liberación social*, 1963).

ETAk badaki bere lekua. Eskuin alderantz egin du lehenengo mugaketa (1962), ezkerretarantz gero (1963).

5. «Askatasun osoaren» borroka, 1964

63aren udazkenean, ETAk Bizkaiko langileen grebak eta protestak zuzentzeko Komite Koordinatzailean parte hartzen zuen. Urriko grebaren ondoren, ordea, burkide—mordo bat preso atxeman zuten, ETA «desmantelatuz», esan ohi zenez.

Negu aldera saiotxo batzu egin zituen ETAk Euskadiko PCrekin harremanetan abiatzeko, baina lehen kontakto haietatik ez zen deus atera, bion desengainua ez bada. Bien arteko polemika gogortu egin zen. Hona hemen ETArek erantzun bat Pirenaica irratitari:

Nuestra posición ante el problema social es neta. Vamos a hacer una *revolución* social. Es decir, cambio radical de las actuales estructuras económico—sociales: desaparición del capitalismo actual —vasco o extranjero— de Euzkadi e implantación de una economía democráticamente dirigida. Si se nos pregunta por el sistema que vamos a adoptar, responderemos: UN SISTEMA VASCO. No tenemos por qué copiar de nadie; tenemos en nuestro propio pueblo las constantes esenciales de un auténtico socialismo comunitario. Ahí están como botones de muestra el sentido de la propiedad (nunca «jus abutendi», como los vecinos latinos) y la pues-

ta en común de los bienes de producción de los pastores (todavía vigente en Zuberoa).

Ello nos basta para comprender que tenemos que sacar de nuestra propia sustancia vasca nuestro futuro sistema social. Bastantes de las medidas que propugnamos coinciden con lo que hoy en día se denomina socialista ¡Y qué! No nos asusta la palabra, pues para nosotros tiene pleno sentido..., además no pretendemos ser exclusivistas ni únicos. Afirmamos solamente nuestra decisión inquebrantable de hacer una revolución social vasca con todo lo que la palabra significa. Por ello, porque queremos hacer una revolución social vasca, nos pronunciamos contra todo conservadurismo; por eso afirmamos que nuestra victoria política —la independencia nacional— sería una derrota si no fuera completada y seguida de la implantación de una democracia vasca auténtica: POLITICA, ECONOMICA, CULTURAL. Con partidos políticos, con sindicatos libres, con libertad de religiones, etc. etc. (1964, *otsaila*).

Polemika honen zakartasunak, arrazoia piska bat mementuko baldinkizunetan zeukan. Prentsa frankistak, alde batetik, baina PNVk ere bai, bestetik, ETAr berehalaxe eraso zioten, haren komunismoa edo komunistekin omen zeuzkan tratua zirela eta ez zirela. Komunismo—akuzazioak urte haietan pisu handia zuen.

Fronteak mugitzen hasiak ziren, edonola ere. «Asi gaitezen komunismuarekin alkar izketan» artikulua bat agertu zen maiatzean, Jakin 16, 1964, 43–54. Ikusten da, haizeak nondik jotzen zuen. Abenduan (1964) Euskadiko Alderdi Komunistak «Arragoa, revista de cultura y política» ateratzeari ekin zion: «una revista que, a la luz del marxismo—leninismo, aborde todos los problemas concernientes a la vida política, social y cultural vasca en la actualidad». Aldizkariak ez du hiru urte baino iraungo. Gazteria berriak komunismoarekin lehenengo harremanak zuzen—zuzenean eduki ahal izateko balioko du behintzat. Aurrerantzean Euskadiko gertakarien analisisa komuniston azterketa marxista—leninistarekin alde-ratu eta kontrastatu beharra ere guztientzat izango da aberasgarria.

1964 mugarri—urte bat izan da ETAREN pentsamenduaren historian. Lehen epe honetako (ETA bere definiziora iristen den aldiko) dokumenturik interesgarrienak, formaz nahiz edukinez landuenak, urte honetan agertu dira. Hasteko, urteberri egunean bertan ETAK bere lehenengo Manifestua Euskal Herriari zabaldu zuen: Manifiesto de ETA al Pueblo Vasco. Urte berria zein kontzientzia berriarekin hasi duen seinale, Manifestu hau berau dugu, Manifestuaren tonua: «año primero, esaten da, de la lucha por la liberación total de Euzkadi». Honez gero badakigu total horren esanahia. Aurreko urteak, bada, preparazio—urtetzat ematen dira. Orain bidea aurkitu da eta borroka hasten da. «[ETA] preconiza como única solución satisfactoria para Euzkadi la lucha de TODOS los vascos por su liberación nacional y por su liberación social».

Askatasun osoaren kontzeptu bakarrean sintetizatzen den xede—bi-

koiztasuna (askatasun nazionala, soziala), ETAREN pentsamenduaren ardatza, 62ko Printzipioetatik hasi eta poliki-poliki zehaztuz etorri da. ETAREN pentsamendua ez da sistema geldi bat, ezpada ibilian-ibilian burutzen den gogoeta-prozesua. Hurrengo urteetan, oraindik, formulazio egokiago baten bilaketan ikusiko dugu (abertzaletasun iraultzailea, langileriaren abertzaletasuna, etab. formulak erabiliko dira), azkenean PTV edo euskal herri langilearen askatasuna formulatu geratu arte. ETAREN historiari badakigu, nolako iskanbilak sortu diren gero funtsezko bi-koiztasun horren inguruan. Ez da harritzekoa, historiariren batzuk liskar horien sokari hasieretara ino segitu nahi eta segitu ahal uste izatea, bi helburuok hasieratik beretik elkarrekin teinkan eta gatazkan beti agertu balira bezala, are bi sektoreen arteko borrokaren fruitua balitz bezala ETAREN definizio bikoitza. Agian konbentziturik daudelako alde aurretik bere golkoan, xede biak (abertzaletasuna, sozialismoa) elkarteizak direla.

Alabaina ez dirudi 1964eko ETAREN baitan halako barne-borroka dialektikoetarako baldintzarik oraino ematen zenik (kopuru, jatorri-desberdintasun, ekintz barrutien aski berezitasun eta autonomia, etab.). Fronte berezien doktrinarik, ez egiazko praxirik ere zegoen. Bestalde, kontraesanak haundiegiak ziren kanpokaldera, PNVrekikoak bereberki, barnean pizaturik sortzeko. Azkenik, borroka sozialaren kontzeptuak ez zuen oraindik, Marxekin gehiago familiarizatu ala irabaziko duen trinkotasun doktrinalik bere baitan, nazio-borrokaren alderdia gabe (edo intransijentziarik, horrela nahiago bada). Gero gerokoak: Larrinagaren (F. Iturrioz) Del Pueblo Vasco eta Manifestuaren artean ez da inolako tein-
karik nabari, ezta bion eta 1964eko ETAREN idazki doktrinal inportante-
naren artean ere, Carta de ETA a los intelectuales vascos.

Manifestu-ko «año primero» eta horiek baino hobeto, Euskal Intelektualei Gutuna-k erakusten du, ETAK bere pentsamenduaren eta proiektuaren heldutasunera iritsia uste duela bere burua (heldutasun denak dira erlatiboak). Berritasun haundirik ez dago, puntutxo konkretuetan izan ezik (kooperatibismoaz, adibidez). Dokumentu hau bilduma bat da batez ere, sintesia eta ibilitako prozesuaren helmuga («susceptible de evolucionar y completarse con la aportación de todo el pueblo», espreski aitortzen denez). Bertan franko garbi azaltzen da ETAREN posizioa euskal iraultza sozialista baten alde (Larrinagak, halaber, bere artikuluan: «nuestro pensamiento es tanto de liberación nacional como de revolución social»): kapitalismoaren eta gizarte-egoeraren analisisa, ordea, aurretik inoiz ez bezalako zehaztasunez eta koherentziaz dago egina. Argi uzten da iraultzaren subjektu aktiboa zeinek izan behar duen:» (...) la salvación de Euzkadi —y Euzkadi son sus trabajadores en el sentido más amplio— sólo puede venir de los trabajadores mismos». Xede nagusiak beti-

koak dira: 62ko Printzipioetan bezalaxe 63an, beti ETaren helburu bi-koitza aldarrikatzen da, soziala eta nazionala («puros aspectos de la liberación total que propugnamos», cfr. Liberación nacional y liberación social idazkia), eta helburu horixe finkatzen da 64ean ere bortizki.

Xede horien lortzeko baliabideei buruz gutun honek fitsik ez esatea, borroka armatuaz alegia, bidezkoa da, intelektualei zuzendutako dei bat izanki. ETAk argi eta garbi esaten du, halere, estruktura kapitalistak ez direla berez eta eboluzioz desegingo, baizik eta beharrezkoa izango dela «un derrocamiento por vía revolucionaria de las estructuras actuales y su sustitución por otras genuinamente vascas y democráticas». Nazio-borrokaren alderditik gauzak berdintsu ageri dira: Euskadiren askatasuna ez da bakezko bidez posible izango. «Nos consideramos en guerra con España y con Francia: ni más ni menos», deklaratu du ETAk urte honetan. Bai ETaren iraultza sozialak eta bai nazionalak borroka armatua eskatzen du (hau ez da izan inondik ere ETaren «tercermundismo»aren fruitua). Bidezkoa zen, beraz, apiril eta maiatzeko III. Biltzarrak la insurrección en Euzkadi onartzea. Doktrinako edo pentsamenduko edozein diferentziak baino gehiago, honela, errepresio gogorrenaren azpian, abiarazi zen borroka armatuaren mistikak, aurrerantzean oreka gordetzea zaila bihurtuko zuen dinamika, ezartzen zion ETaren desarroiloari. 1964, urte gurutzal bat: urte honetan ospatu zen gerra ostean lehenengo Aberri Eguna (Gernika). Maiatzaren 1.aren prestaeretan ETAk lehen aldiz hartu zuen parte. ELA zatitzen da. Euskara batua erabiltzeko bile-
rak Baionan. Ikastola-mugimendua indartzen hasten da...

Hemen oro da zilegi,
baita euzkotar abertzaleen erotasuna ere.
Hemen inor ezta konturatzen
ekaitz handia
hurbil
dagoela...

idazten du Gabriel Arestik: Harri eta Herri (1964). Eta: «Beti paratuko naiz / gizonaren alde».

6. Orain 20 urte

Gizonaren alde: askatasuna gizonarena dela, konprenitzen bada, eta gizona beti konkretua dela, erraz ondorioztatzen da, euskaldunaren «askatasun osoak» nazionala eta soziala izan beharra. Urte hauetako planteiamenduetan, orain ahaztuxea dirudien filosofia batek eragin handia izan du Euskal Herrian: pertsonalismoak. Ez ETAn bakarrik (eliz mugimendu sozialetan haundiagoa izan du noski). Pertsonalismoa, klase-arazoetan marxismoaren oso kidekoa izanik ere, pertsonaren eta

gizartearen ikuspideetan ez da marxismoa bezain historizista, h.d. elkar- te «naturalak» (familia, nazioa) askoz gehiago begiratzen ditu, ez ditu di- solbatzen historiako amil-uretan. Beste anitz aldetatik, halere, marxis- moaren irakurkera edo zuzenketa bat bezala ikus daiteke, existentzialis- mo frantsesaren moduan. Asko da, behintzat, biok marxismoari zor dio- tena.

Marxismoak irakurkera eta erabilera desberdinak ametitzen ditu. Le- ninek marxismoa «desarroilatu» egin zuela esanez, ez da kentzen, desa- rroilo-beharrik egoteko, aurretik hutsuneak edo eskasiak egon behar zu- tela, eta desarroiloak zerbait erantsi behar izan duela, lehen ez zegoena. Leninismoa, titoismoa, maoismoa, Frankfurteko Eskola, etab., marxis- moaren irakurkera desberdinak eta «desarroiloak» dira, ez marxismo hu- tsa. 60. urteetan Euskal Herrian egin den marxismoaren irakurkera eta baliapena, pertsonalismo-existentzialismo-marxismo tankerakoa izan da funtsean, mementuko filosofia nagusiei jarraiki. Borroka-ereduen aldetik, ostera, orduko borrokak hartu behar izan ziren eredu, eta horiek Hirugarren Munduko askatasun-mugimenduak ziren. Honek berak aski markatzen zuen, hemen marxismoaren nolako irakurkera egin beharko zen.

Edozein egon daiteke marxismo «hirugarren mundutiar» honen aur- ka, eta pentsa daiteke ETAre hankasartze ikaragarri bat izan zela hori. Buru hainbat aburu. Nik neuk, ordea, uste dut, marxismoa hemen sartu ahal izateko, hartaz hemen baliatu ahal izateko, bide bakarra horixe zela (gogora bedi EMK, ORT, etab. beste mugimendu guztien marxismoan ere zenbat Hirugarren Mundu dabilen). Horrela izan ez balitz, orduko Euro- pako marxismo «ortodoxoak» ez zeukan sartzetik. Hemendik kanpora ere berehalaxe ikusi da, ortodoxia horiek non geratu diren, 68ko maia- tzean, eurokomunismoan, etab., neo-ortodoxia althusserianoan bertan.

Delako marxismo pertsonalista-existentzialista-hirugarren mundu- tiar honi eskerrak, aldiz, ETAK bere borroka nazionalaren eta sozialaren lehenengo sintesia egin ahal izan zuen (baliozkoa ala gabekoa, orain ez digu axola), Europako marxismoarekin inoiz ezingo zuena.

Bere borrokaren sentidoa adierazten ez- ezik, euskal historia moder- noaren interpretazio klasezko eta nazional batean ere laguntzen zion ETARI marxismo horrek. XIX. mendean Foruak ezabatuz gero, Euskal Herriak botere arrotz batek okupatuaren sentimendu gogorra eduki du, inbaditu eta katez lotuaren kontzientzia. Gure gaitz guztien sorburua in- basio edo okupazio espainola dela esateraino (Arana Goiri) ez dago aile- gatu beharrik: begien bistakoa da euskal herriaren (komunitatearen) zein hondamendi hasi den orduan, eta nola bertoko kapitalistak konpli- zeak izan diren. Orain, beraz, Euskadi kolonia bezala interpretatuko da, ondorio guztiekin, eta inbasorea kapitalismoa izango da: «(...) la historia

de colonización de nuestro pueblo vasco, tiene que ser reivindicada y asumida por el colonizado» (1962); Krutwig (1963); «estamos en presencia de un despotismo colonialista, aniquilador de todos los derechos y libertades del hombre; favorecedor de una clase exclusiva, la capitalista, enriquecida y omnipotente. Este doble crimen contra nuestro pueblo se acompaña de una auténtica domesticación del país y de sus moradores, olvidados de sus derechos y desconocedores de la extrema degradación en que se hallan postrados» (Manifiesto, 1964). Zertarako aipa, hemen, Fañon eta Memmi. Era honetan Euskal Herriko historiaren ikuspide eta sentimendu tradizional batzu, ia klasikoak, eskema berri batean asumi zitezkeen.

Problemarik ez zen faltako. Euskal Herri foralaren idealizazio hura, esate baterako, aspaldidanik euskal errebindikapen nazionalen oinarri antzean erabili ohi zena (oraindik ere entzuten dena noizean behin), historiaren klase-ikuspide batekin nola josi? Eta nola explikatuz Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz liberalak izatea, ez karlistak, Foruak galdu baino lehenagoko paradisu hartan? Eta horiek ez bait dira euskaldunek beren artean erabili dituzten liskar eta gudu bakarrak, nola explika?... Gerora, egia da, historilari txit argiak argitu zaizkigu munduan, «igualitarismoa» eta, «euskal historiako mito» horiek ausarki jorratzen, historia, abertzale mitozaleen kontra, bere zuzentasun zientifikora itzultzeko gurutzada gartsuan, historiaren interpretazio-molde haiek abertzaletasunaren oinarriak berberak balira bezala, edo abertzale guztientzat ezinbesteko dogmak eta ezinbestelakoak. Enteratu gabe, nonbait, gerraosteko belaunaldi batek, dexente lehenago eta ofizioz historilari argi izan beharrik batere gabe, abandonatuak zituela bere kasa ikuspide horiek. Hona hemen Txillardegiren textutxo bat, polita bezain ezezaguna delako aipagarria:

Gizonaren diñatasunari eta gizatasunari gagozkiela: nahiz gauza ageria izan igaro diran denborak, alderik gehienetarik, oraingoak baino txarragoak izan dirala, iragan denborak lilluratzen du [eskuindarra]. Euskal Herriari buruz, hunengatik, bereala ezagutarazten dugu danok gure burua: eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zorientasunaren ipuia siñisterazi nahi digute besteoi; eta, ezin lorturik, gutaz etsitzen dute. Zergatik etsiko? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian are gutxiago, euskaldunak zoritxarrean eta zapaldurik bizi izan dira. Eta hau egia dala frogatzen ahal dala uste dugu.

Ezkertarrek uste dute, beraz, ba dala garaia euskaldun herriak lehenengo aldiz bere burua altxa dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera jo nahi, «lege zahar» billa, denbora «zoriontsu» haietaz ez baitugu deusik ere siñesten. Iku-si besterik ez dago hau Euskal Herriko kondairan; edo euskalduna nola bizi dan aldakuntzarik gertatu ez diran eskualdeetan. Gogora ekarriko ditut ezaugarri nagusiak: gosea, eritasuna, miseria, edozertarako behar gorria, apezkeria, ezjakintasuna, euskaldungoarekiko mespretxua eta morroin-plegua. Horra hor galdutako parabisua.

ETAk abertzaletasun berri bat ekarri nahi zuen, oraindik elementu

zahar edo tradizional askorekin nahasturik agertu arren. «El nacionalismo que nosotros propugnamos, idazten zuen Iturriozek ere, es distinto del nacionalismo histórico. Ni el Ducado de Vasconia, ni (...) son las bases de nuestra ideología (...). Propugnamos... un nacionalismo nuevo, humanista, abierto a todos los habitantes del País», etc. Berria, abertzaleztasun «burgesarren» aldean eta kontrastean hain zuzen. «Para nosotros el compromiso de la burguesía vasca con el régimen es evidente (...); ello es un motivo más que nos impulsa a propugnar un nuevo nacionalismo, dirigido a círculos de población distintos de los que hasta ahora iba dirigido».

Historiaren filosofia marxista, ortodoxoa, progresibo-lineala da. Abertzaletasunak (hots, «nazionalismoak») bere leku sozial eta ordu historiko jakinak ditu erloju mekaniko hartan. Ez da erraza, hurrenez-hurrengo etapa historiko materialki determinatu horien eskemari bere horretan eutsi nahi bazaio, euskal abertzaletasun ez burges bat justifikatzea gaurregunerako. Leninek nazio-borrokaren onespén funtsean taktiko soila egiten zuen (demokratiko burgesaz gainera): langileen interesei onuragarri zitzaizen neurrian onartzen zuen nazio-borroka. Hori gutxitxo iruditzen zitzaion ETARI. Gehiago, nazioaren berezko balioaren aitortza positibo bat, pertsonalimotik eta existentzialimotik atera zitekeen. Egin ere, hala egin zen (gero «esentzialismo» bezala kritikatu zaiona, arrazoi haundirik gabe). Baina ohargarria da, nola klase-eskema soilarekin, nazioaren errealitatea auzian sartu gabe, euskal abertzaletasuna legitimatzeko lehenengo ahaleginak jadanik urteotan entseiatu diren, Leninen inperialismo-teorian oin hartuz hain zuzen. 1965eko textu bat aipatuko dut, bukatzeko, bere ahulezian ere adibide interesgarria delakoan:

(...) Ultimamente el concepto de Nacionalismo ha dado un verdadero vuelco en el mundo entero.

Los nacionalismos nacieron como ideología política en la lucha de la burguesía contra el poder feudal. Entonces la burguesía constituía la vanguardia del progreso y, por consiguiente, su arma ideológica, el nacionalismo, fue una ideología progresista frente al desmembramiento feudal anterior.

Pero ocurre que la burguesía llega al poder —político y económico—, a su impulso progresan la ciencia y la técnica y se desarrolla el capitalismo industrial, capitalismo que hace nacer una nueva clase: el proletariado.

(...) En esta lucha de los trabajadores por conseguir el control de la sociedad y de la burguesía por conservarlo, se sigue usando el nacionalismo, pero ya no es una ideología revolucionaria, sino conservadora y reaccionaria (...) En estas condiciones, la clase obrera de todos los países responde con el internacionalismo y esto tanto por necesidad objetiva (unirse en una lucha común por el derrocamiento del capitalismo), como por la necesidad ideológica de contrarrestar la principal arma ideológica de la reacción burguesa: el Nacionalismo.

Ciertamente esta etapa del proceso subsiste todavía, y donde quiera que haya un nacionalismo deben estar los trabajadores en guardia para que los intereses de

clase de la burguesía no se escuden tras él. Pero paralelamente se ha dado otra situación de gran importancia: el *paso del Nacionalismo burgués al Imperialismo*.

La burguesía ha necesitado, para seguir manteniendo su situación privilegiada, no ya de explotar al proletariado de su país, sino inclusive a pueblos enteros. La ideología de esta explotación es precisamente el Imperialismo (...).

Ahora bien: la explotación de una nación por otra se funda pronto en formas de opresión nacional. Por ello, el pueblo así explotado y oprimido se revela, se lanza a la lucha; y en esta lucha, volvemos a encontrar una forma de nacionalismo, pero una *forma nueva*: un Nacionalismo popular, que busca tanto la independencia como el socialismo.

No es otra cosa lo que está sucediendo en Africa, Sudeste Asiático y Sud América. Ese es también el nacionalismo de ETA.

Aski, gaurkoz. Honelatsu gertatu zen, nola gazteok marxismoa aurkituz joan ziren beren bidean. Hau dena zehazkiago eta hobeto ikertu beharra dago, ez bait dut uste behar bezala egina daukagunik orain artean. Gero, gainera, marxismoaren beste aurkitze bat egongo da, belaunaldi gazteago batena, baldinkizun sozial eta doktrinal franko diferenteetan, 68-70 aldera. Ordurako biziki aldatua egongo da euskal gizartea (seminarioen krisia eta, orduko historian sartzan dira: ETAREN historia seminarioen edo seminaristen historia bihurtu nahi dutenak ere, bada, edo sustrai erlijioso-mitiko hutsak aurkitu nahita dabilzkionak, ETAREN lehenengo hamabost urteak borratuz legitimatzen digute beren inbentua). Bigarren aurkitze hori batez ere V. Biltzarrak (1966) eta haren ondorioek egongo da kondizionatua. Guk, hemen, IV. erainoko prozesua ikusi dugu (1965).

60. lehen urteotako ETA, apenas dago esan beharrik, ez zen marxista. Marxismoa erabili bai, egiten zuen. Irekia zegoen marxismoari. Baina marxismoarekin topo egin denean, ez da izan buruz behera bertan murgiltzeko, ikasteko baino eta hartaz (kritikoki) baliatzeko. Posible ere, agian ez zen posible gehiago. Gehiegi zen, halere, euskal gizarteko zenbait interesentzat (ikus «Leturia eta Txillardegi Jainkoaren billa», Jakin, 20, 1965, 38-46). «(...) Ciertos aspectos de nuestro ideario, de nuestra doctrina política, hacen daño, molestan y atacan... a muchos intereses económicos y materiales que existen en Euzkadi bien protegidos por una capa de «nacionalismo». Lo que verdaderamente les duele es que propugnemos una revolución social a la vez que una liberación nacional» (1964). Gehiegi zen.

J.A.

EL MARXISMO EN EUSKADI (1959-1965)

LE MARXISME EN EUSKADI (1959-1965)

Este artículo estudia el proceso evolutivo del pensamiento de ETA desde sus orígenes hasta la aparición del marxismo en su seno hacia 1964. En él no deberá entenderse nunca el marxismo en el sentido de una ortodoxia rígida.

ETA nace en 1959, el mismo año de la victoria de la revolución castrista en Cuba. Sin embargo, más que a motivos ideológicos, su aparición responde a necesidades de acción como respuesta a la represión que sufre el pueblo vasco. ETA surge en la familia nacionalista y comparte con ella la ideología democrática y su visión del pasado histórico vasco, así como sus aspiraciones de libertad. Las diferencias ideológicas, observables desde el principio (aconfesionalidad, etc.), no parecen notables.

Tras varios años de estudios y de formación de la militancia, combinados con alguna actividad subversiva, la juventud integrada en ETA celebra su primera Asamblea en 1962, fijando los Principios rectores y que pueden resumirse en un doble objetivo: la liberación de Euskadi y la liberación, en Euskadi, del pueblo vasco. Este punto de partida, una definición muy vaga todavía, conocerá una rápida evolución y en menos de dos años habrá adquirido un contenido concreto.

La postura inicial de ETA frente al marxismo es desconfiada, toda vez que se identifica al marxismo con los Partidos Comunistas y la Unión Soviética (stalinista) como un todo monolítico. Un libro de Krutwig, Vasconia, abre el horizonte hacia la posibilidad de un comunismo vasco nacional y nacionalista (1963). En adelante ETA, ya anteriormente interesada en los métodos de organización comunista en la clandestinidad y, sobre todo, en los movimientos de liberación de países del Tercer Mundo, tendrá una actitud más abierta y receptiva frente al marxismo.

El encuentro de ETA con el marxismo entre 1963 y 1964 ha tenido lugar por dos vías desiguales: por la práctica de la lucha social, por un lado, y por la de la lucha armada o «guerra revolucionaria», por el otro. Un análisis de clase, mostrando que en ambos casos el enemigo es idéntico, el capitalismo, opresor tanto de Euskadi como de la clase trabajadora, posibilita la síntesis en el concepto del «nacionalismo de los trabajadores», opuesto al imperialismo burgués. El Pueblo Vasco, declara ETA, se encuentra sometido a una doble opresión nacional y social. Sólo una Euskadi socialista puede ser la patria libre de los vascos.

Por estos años ETA aprende del marxismo y lo utiliza ampliamente en sus análisis, pero nunca se declara marxista: postura lógica con su declaración de ser un movimiento revolucionario, no un Partido. Sin embargo su posición es clara: «(...) La salvación de Euskadi —y Euskadi son sus trabajadores en el sentido más amplio— sólo puede venir de los trabajadores mismos. Por eso el nuevo orden social que preconizamos sólo será posible con unas estructuras que garanticen al trabajador el control de su propia industria y, a través de los organismos creados por él, el control de la economía nacional» (1964).

Cet article étudie le processus évolutif de la pensée de l'E.T.A. depuis ses origines jusqu'à l'apparition du marxisme en son sein vers 1964. Le marxisme de l'E.T.A. ne devra jamais être compris dans le sens d'une orthodoxie rigide.

L'E.T.A. naît en 1959, année de la victoire de la révolution castriste à Cuba. Cependant, plus qu'à des motifs idéologiques, son apparition répond aux besoins d'action comme riposte à la répression que subit le peuple basque. L'E.T.A. surgit au sein de la famille nationaliste et partage avec elle l'idéologie démocratique et sa vision du passé historique basque, ainsi que ses aspirations à la liberté. Les différences idéologiques, observables dès le début (aconfessionnalité, etc.), ne paraissent pas notables.

Après plusieurs années consacrées aux études et à la formation des militants ainsi qu'à quelque activité subversive, la jeunesse intégrée dans l'E.T.A. célèbre sa première assemblée en 1962, au cours de laquelle sont fixés les principes directeurs: principes qui peuvent se résumer en deux objectifs: la libération d'Euskadi et la libération, en Euskadi, du peuple basque. Ce point de départ, une définition très vague encore, connaîtra une rapide évolution et en moins de dix ans aura acquis un contenu concret.

L'attitude initiale de l'E.T.A. face au marxisme est une attitude de méfiance, étant donné que le marxisme est identifié aux Partis Communistes et à l'Union Soviétique (staliniste) comme un tout monolithique. Un livre de Krutwig, *Vasconia*, ouvre l'horizon à la possibilité d'un communisme basque national et nationaliste (1963). Dorénavant l'E.T.A., déjà intéressée aux méthodes d'organisation communistes dans la clandestinité et, surtout, aux mouvements de libération des pays du Tiers Monde, aura une attitude plus ouverte et réceptive face au marxisme.

Le rapprochement de l'E.T.A. au marxisme, entre 1963 et 1964, s'est produit par deux voies différentes: par la pratique de la lutte sociale, d'un côté, et par celle de la lutte armée ou «guerre révolutionnaire», de l'autre. Une analyse de classe, démontrant que dans les deux cas l'ennemi est le même à savoir le capitalisme, oppresseur à la fois d'Euskadi et de la classe ouvrière, permet la synthèse dans le concept du «nationalisme des travailleurs», opposé à l'impérialisme bourgeois. Le Peuple Basque, déclare l'E.T.A., se trouve soumis à une double oppression nationale et sociale. Seule une Euskadi socialiste peut être la patrie libre des basques.

Durant ces années l'E.T.A. s'inspire du marxisme et l'utilise amplement dans ses analyses, mais ne se déclare jamais marxiste: attitude logique avec sa définition comme étant un mouvement révolutionnaire et non un parti. Cependant sa position est claire: «(...) La salut d'Euskadi —et Euskadi ce sont ses travailleurs dans le sens le plus large— ne peut venir que des travailleurs eux-mêmes. C'est pourquoi, le nouvel ordre social que nous préconisons, ne sera possible qu'avec des structures qui garantissent au travailleur le contrôle de sa propre industrie et, à travers les organismes créés par lui, le contrôle de l'économie nationale» (1964).